

## ESTATUAREN ESKU-HARTZEA

### MERKATU-EKONOMIA

#### **Baldintza guztiak betez gero:**

- Baliabideen esleipen egokia.
- Prezioak bidezkoa.
- Kontsumitzaileek nahi dutena eskuratu
- Ekoizleek ekoizpen osoa saldu.
- Langabeziarik ez.

#### **Baina errealitatean, baldintza guztiak ez dira betetzen:**

- Ez dago informazio perfekturik.
- Enpresak ez dira txikiak (kasu batzuetan oso handiak).
- Ez da erraza nahi duzuna ekoiztea.
- Kontsumitzaileen gustuak bideratuta daude (publizitatea).
- Eskaria eta eskaintzaren arteko doikuntza ez da automatikoa.
- Merkatuak ematen duen errentaren banaketa ez da bidezkoa.

### Merkatu ekonomiak dauzkan arazo batzuk:

#### ESTATUAREN BEHARRA

- Estatuaren lehenengo funtzioa: arautzea, funtzionamendu arauak ematea.
- Arau horiek merkataritza-zuzenbidea, patenteak, jabetza eskubideak, lehia babesteko politika eta abar luze bat dira.

#### ARAUZE FUNTZIOA

- Produkzio faktoreak pribatuak dira. **Jabetza-eskubideak** agertzen zaizkigu.
- Eskubide horiek arautu behar dira. Gainera, marko juridikoa behar da elkartruke guztien jabetza eskubide horien araberakoak izateko.
- Horretarako merkatuaren gainetik dagoen AGINTEA behar da.

#### ONDASUN PUBLIKOAK

- Merkatu ekonomia hutsean **etekinak** lortzeko asmoz ekoizten da.
- Etekinak lortzeko ondasunak **saldu** behar dira (gainera ekoizpen-kostutik gora saldu behar).
- Ondasun edo zerbitzuek, beraz, **prezioa** eduki behar dute.
- Erosle potentzialek prest egon behar dute ondasun horien prezioa ordaintzeko.

#### ESTATUAREN BEHARRA

- Noiz egongo gara ordaintzeko prest?
  - a) ondasuna nahi dugunean
  - b) ez dagoenean dohain lortzerik
- Zenbait kasutan, ondasuna nahi dugunean ere, ez dugu zertan ordaindu. (?)
- Kasu horietan BAZTERKETA ezin dela gauzatu esaten da.  
Baztertzea: erabiltzeko ordaindu egin behar izatea

### ONDASUN PUBLIKOAK: Lehia eta bazterketa

- Ondasun pribatuak **baztergarriak** eta **lehiakideak** dira.
- Ondasun publikoak, berriz, **ez baztergarriak** eta **ez lehiakideak** dira.

### ESTATUAREN BEHARRA

- **Baterako kontsumoa** egin behar dugu: pertsona batek kontsumitzeak ez duenean eragozten beste batek ere kontsumitzea (**EZ LEHIAKIDE**).

Adibidez:

- Zinema areto batean **baterako** kontsumoa dago. Pertsona batek filma ikusteak ez du eragozten beste batek ikustea.
- Baina ez da ondasun publikoa.
- Zergatik? • Bazterketa egin ahal delako. Sartzeagatik kobratzea erraza da eta egin ahal da.

Beste adibide bat:

- Kaleko farolak ondasun publiko baten adibide dira:
  - a) ezin da inor baztertu zerbitzu horren kontsumotik (edo garestiegia da)
  - b) baterako kontsumoa egiten da
- Orduan zerbitzua ezin da kobratu. Eta ezin bada kobratu ez da diru-sarrerarik egongo eta ez da etekinik egongo. Beraz, sektore pribatuak ez du zerbitzu hori emango.
- Klean argia nahi badugu, norbaitek eman beharko du eta hori ESTATUA izango

### KANPO ERAGINAK

- **Kanpo eraginak:** Produkzio prozesu batek beste produkzio prozesu batzuegan, ingurugiroan edo pertsonengan duen eragina.
- **Eragina negatiboa:** kalteak sortzen dituenean (ohikoena kutsadura da).
  - **Negatiboak direnean KANPO DESEKONOMIAK** agertzen direla esango dugu.
- **Eragin positiboak:** Enpresa batek oinarrizko ikerkuntza egiten badu, beste batzuk horren onurak jaso ahal dituzte.
  - **Positiboak direnean KANPO EKONOMIAK** agertzen direla esango dugu.
- **Zergatik dira arazoa kanpo ekonomia edo desekonomiak?** Merkatu ekonomian ez direlako kontuan hartzen.
- **Kostu pribatuak:** Enpresa batek bere etekina kalkulatzeko kontuan hartzen dituen bere kostuak (lana, kapitala, osagaiak, energia, etab).
- **Kostu soziala:** Ingurugiroari kaltea egitean, kostu hori ez da berea (ez du ordaindu behar). Gizarteak ordaindu beharko du (kutsadura hori garbitzeko)
- Orduan, inork ez badu zerbait egiten, enpresek kutsatzen jarraituko dute. Beraz, kanpo eragin negatiboak agertzen direnean aginte bat behar dugu horiek arautzeko. Berrito ere Estatuaren beharra ikusten dugu.
- Eragin positiboak: **Etekinak pribatuak** direnean, enpresak motibatuta daude ondasun edo zerbitzuak ekoizteko (dirua irabaziko dutelako). Baina **etekinak sozialak** direnean ez.

Gizarteak ondasun edo zerbitzu horiek behar baditu, Estatuak ekoizten lagundu beharko du (subentzioen bidez, enpresa publikoen bidez, etab.).

### ERRENTAREN BANAKETA

- Merkatu ekonomiak populazioari **diru-sarrerak** ematen dizkio euren **ekoizpen-faktoreen** truke.
- Populazio gehiena ekoizpen-faktore bakar baten jabea da: **lana**.
- Horrek, askotan, populazioaren sektore zabalak **pobrezian** utz ditzake.
- Egoera horiek saihesteko Estatuak parte har dezake eta **errenta birbanatu**.
- Errentaren banaketa gauzatzeko Estatuak dauzkan tresnak:
  - a) Tributu-sistema (zergak)
  - b) Gizarte Segurantza
  - c) Lehentasunezko zerbitzuak dohainik ematea (hezkuntza, osasungintza, etab.)
- Agerikoa denez, ekonomia **ziklotan** mugitzen da.

### ESTABILIZAZIOA

- Merkatu ekonomiek **epe luzeko joera** bat daukate: **hazkundera**.
- Hala ere, epe luzeko joera horren barnean gorabeherak:
  - a) batzuetan **atzeraldi** ekonomikoak
  - b) beste batzuetan **susperraldi** ekonomikoak
- Egoera guztietan **arazoak** sor litezke:
  - **Atzeraldi ekonomikoetan langabezia** agertuko zaigu.
  - **Susperraldietan, batzuetan, inflazioa** agertuko da.
- Ekonomista guztiek **Estatuaren beharra ikusten dute Merkatu-Ekonomietan**.

### AURREKONTU PUBLIKOAK

- Estatuaren tresna nagusia **AURREKONTU PUBLIKOA** da.
- Bertan Estatuaren **gastuak eta diru-sarrerak** jasotzen dira.
- **Diru-sarrera publikoen funtzioa**: gastu publikoaren finantziazioa.
- **Diru-sarrerak lortzeko bideak**:
  - a) Tributuak (garrantzitsuena)
  - b) Zor publikoa
  - c) Bestelako diru-sarrerak
- **Gastu publikoak** Gobernuaren gastuak dira, Legebiltzarrean onartu behar direnak
- **Helburuen arabera mota askotako gastuak**:
  - a) Gastu soziala (hezkuntza, osasungintza, pentsioak, etab)
  - b) Gastu militarra
  - c) Azpiegituretako gastua
  - d) Zor publikoaren itzulketa
  - e) Justizia Administrazioa
  - f) ...

## **HELBURUAK**

Aurrekontuen helburuak oso anitzak izan litezke, faktore batzuen arabera:

- a) Diru-sarrerren konfigurazioa: sistema fiskalak (ezarrita dauden tributuak) emango digu.
- b) Gastuen konfigurazioa

Sistema fiskala:

- a) **progresiboa** izan daiteke, bere helburua errenta eta aberastasuna goitik behera banatzea denean (goi-klasetatik behe-klaseetara)
- b) **erregresiboa** izan daiteke, bere helburua errenta eta aberastasuna behetik gora banatzea denean.

Gastuen konfigurazioa zein den jakiteko, gastu sozialean arreta jarri beharko dugu: herri batean gastu sozialak handiak badira, aurrekontuen helburua behe-klaseak laguntzea izango da eta, beraz, errenta banatzea.

## **TRIBUTUAK**

1. **Sarrera** publikoak dira.
2. **Herri Administrazio batek exijitzen dituen diru prestazioak dira**, gastu publikoei aurre egiteko.
3. Beharrezkoak dira Estatuaren funtsezko helburuak lortzeko.
4. Politika ekonomiko orokorraren tresna gisa erabili daitezke: gizartearen egonkortasuna eta aurrerapena lortzeko eta errenta hobeto banatzeko.

Tributurik garrantzitsuenak **ZERGAK** dira. Hauek bi eratara sailkatzen dira:

- a) Zuzenak eta Zeharkakoak
- b) Progresiboak, Proporzionalak eta Erregresiboak

### **a) Zuzenak eta zeharkakoak**

Administrazio batek zerga bat kobratzen dugunean, gure **AHALMEN EKONOMIKO**Aren arabera kobratzen digu. Baina Administrazio horrek ez daki zein den gure ahalmen ekonomikoa, guk erakutsi behar diogu. Eta bi modutan erakutsi ahal diogu:

1. **ZUZENEAN**: errenta eskuratzen dugunean edo ondarea daukagunean.
2. **ZEHARKA**: dirua gastatzen dugunean.

Eta hor agertzen dira zergak:

- Gure ahalmen ekonomikoa **ZUZENEAN** erakusten dugunean: Zerga zuzenak ordaindu beharko ditugu **PFEZ**
- Gure ahalmen ekonomikoa **ZEHARKA** erakusten dugunean: Zeharkako zergak ordaindu beharko ditugu **BEZ**

### **b) Progresiboak, proporzionalak eta erregresiboak**

**Ezarpen tasa**: gobernuak zergak kobratzen dizkigunean kobratzen digun portzentajea.

### PROGRESIBOA

Errenta handitzean ezarpen tasa ere handitzen bada zerga bat progresiboa dela esango dugu.

ERRENTA	EZARPEN TASA	ORDAINTZEKOA
1.000€	%10	100
1.500€	%12	180

Adibidea: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)

### PROPORTZIONALA

Errenta handitzean ezarpen tasa berdin mantentzen denean.

ERRENTA	EZARPEN TASA	ORDAINTZEKOA
1.000€	%10	100
1.500€	%10	150

Adibidea: Sozietateen gaineko Zerga (SZ)

### ERREGRESIBOA

Bi pertsona telebista berria erosten. Bere prezioa 1.000€koa da. Telebistaren prezioa ordaintzeaz gain BEZ ere ordaindu beharko (%16). Baina soldata ezberdina daukate: batek 800€ irabazten ditu eta besteak 1.600€. Printzipioz biek ordaintzen dute ezarpen tasa bera (%18). Baina hori prezioaren gaineko ezarpen tasa da. Zein izango litzateke soldataren (errentaren) gaineko ezarpen tasa?

Prezioa	Ezarpen tasa	BEZ	Soldata	Ezarpen tasa
1000€	18%	180	800€	23%
			1600€	11%

Gehiago irabazten duenari ahalegin txikiagoa eskatzen zaio eta gutxiago irabazten duenari handiagoa. **Hori da zerga erregresiboa.**

### ONGIZATEAREN ESTATUA

Ongizatearen Estatua historikoki bi zutabetan oinarritu da:

a) Zerga sistema progresiboa

b) Gastu sozial handia, herriari babes soziala emateko

Horrek esan nahi duena: Gizartearen goi-klaseei zergak kobratzen zaizkie eta beheko klaseei prestazioak eman. Bere helburua goitik beherako errentaren banaketa egitea da.

Beraz, zerga sistema progresiboaren bidez:

a) goiko klaseek gastu publikoari ekarpen handiagoak egin dizkiote

b) Beheko klaseek gastu soziala gehiago aprobetxatu dute

ARIKETA: ONDASUN PUBLIKOAK

1. Izoziak
2. Kable telebista/4G
3. Arraina ozeanoan
4. Ordaindu behar ez diren errepide ez-kongestionatuak
5. Arropa
6. Ordaindu behar diren errepide kongestionatuak
7. Ordaindu behar diren errepide ez-kongestionatuak
8. Ingurugiroa
9. Ordaindu behar ez diren errepide kongestionatuak
10. Tornado alarma
11. Defentsa nazionala
12. Web orrialdeak

LEHIAKIDEA

BAI

EZ

1.Izoziak 5.Arropa 6.Ordaindu behar diren errepide kongestionatuak	2.Kable telebista/4G 7.Ordaindu behar diren errepide ez-kongestionatuak 11.Defentsa nazionala 12.Web orrialdeak
3.Arraina ozeanoan 9.Ordaindu behar ez diren errepide kongestionatuak	4.Ordaindu behar ez diren errepide ez-kongestionatuak 8.Ingurugiroa 10.Tornado alarma